



**LEHENDAKARIAREN URTE AMAIERAKO MEZUA EUSKAL GIZARTEARI**  
**2013ko abenduaren 31a**  
**Lehendakaritza**

Gabon guztioi.

Urte berriaren atarian gaude: etxekoekin elkartu, doan urtea agurtu eta berrirako asmo eta nahiak azaltzeko unea da.

Gaur Agirre lehendakariaren hitz bat ekarri nahi dut gogora: “itxaropena.”

Berak horrela zion:

“sinismenak gogortuko dau itxaropena eta lagundu gure eguneroko lana Aberriaren alde.”

Eguberri eta urteberri egun hauek itxaropenerako egunak izatea nahi dugu denok.

Gure lehentasuna izan da bermatzea Osasuna, Hezkuntza eta Gizarte babeserako oinarritzko zerbitzuak.

Erakunde guztiek arlo horiei eutsi diegu.

Hau da gure balioen isla, “pertsonek helburu”...

... Hau da gure eguneroko lana Aberriaren alde.

**Urte zaila agurtzear gaude.**

Pertsonek eta famili askoren zailtasunak gertutik ezagutu...

... Ilun asko ikusi eta elkartasun eskaera ugari jaso ditugu.

Gure erronka izan da gizarte babeserako euskal eredia bermatzea.

Enpresa eta familiek ahalegin handia egin behar izan dute...

... Egoerari eutsiz, garai hobe baten itxaropenean.

Badakit egoera zaila bizi izan dugula, baina utzidazue esaten orain dela urtebete baino hobeto gaudela.

Elkarlanari esker izan da eta elkartasunari esker oinarri sendoagoak dauzkagu aurrera egin ahal izateko.

Datorren urtean aukera berriak izango ditugu; baliatzen asmatu behar dugu.

Helburu honen atzetik asmo bat dago...

... Elkartzeko asmoa...

... Bidea elkarrekin egin behar dugu.

Elkarlana eta elkartasuna jorratzen jarraitu.

Garai berri bat bizi dugu eta adostasunera heltzea da asmatzeko gakoa.

**Gure erronkek gure jarduera ardatzei erantzuten diete.**

Aurrenekoa, ekonomia berpiztu eta enplegu aukera berriak sortu, gazteen artean bereziki.

Elkarrekin ari gara zeregin honetan, denon lehentasuna hau delako: ...  
... Hazkunde iraunkorra eta giza garapena.

Bakea eta Bizikidetzak finkatu eta zabaldu behar ditugu.  
Aukera berria baliatu.  
Gorrotoa atzean utzi, biktimen memoria aitortu; eskuzabaltasunez jokatu eta bizikidetzak hezur mamitu.  
Euskal gizartearen nahiak bidea markatu digu, aurrera egin behar dugu...  
... Bakea eta Bizikidetzak ametsa bete.

Adostasun politikoa ere landu behar dugu.  
Autogobernua sendotu. Hau da gure tresnarik indartsuena ongizatea hobetzeko.  
Baita ere gure lekua irabazteko Europan eta mundu zabalean.

Hazten jarraitzeko garaia da, gure errealitatea, nortasuna eta autogobernua aldarrikatzeko garaia.  
Elkarrizketa zabaldu, negoziazioa ireki, adostasuna landu, gizartearen iritzia jaso eta erabakiak errespetuz onartzea eskatzen dugu.  
Aukera dugu gure Aberriari etorkizun politiko berri baten ateak irekitzeko.

#### **Norabidea badugu elkarrekin aurrera egiteko.**

Proiektu bat badugu, oinarri sendoak dituena...  
... Sinistuta gaude... Ilusioa daukagu, itxaropena ere bai.  
Konpromiso zehatz eta gardena dugu krisialditik ateratzeko, pertsona eta bikaintasuna ardatz dituen Euskadi berria eraikitzeko.

Gure ardura erantzunak eskaintzea da.  
Enplegua sustatzeko, aukera berriak sortzeko eta gizarte oreka bermatzeko.  
Badakigu denon artean Aberria aurrera aterako dugula.  
Horixe da gidatzen gaituen espiritua, zuekin partekatu nahi dudana.

Duela urte bete akordioak lortzea zen gure asmoa eta ahalegina...  
... Gaizki daudenei elkartasuna adierazi eta erakutsi...  
... Zerbitzu publikoak ziurtatu... Lehentasunak finkatu...  
... Aurrerapen ekonomikoa eta enplegu aukera berriak lagundu.  
Aurrera egin dugu.  
Laguntza eskertu nahi dut, akordioa eta elkarlanaren bidez jarrai dezagun.

Euskadiren etorkizunak gizarte sendoa eta kohesiodun bat eskatzen digu...  
... Lanerako kultura, espiritu kritikoa, konbikzio etikoak, aniztasunari errespetua...  
... Gure gizartearen balio sakonak dira.  
Hau da euskal gizarte...  
... Etorkizuneko erronkei irekita dagoena, lehiazteko eguneratzen dakiena.

Pertsona guztiak beharrezkoak gara.  
Garena garetik etorkizuneko Euskadi berrira irekita gaude.  
Hoberena eman behar dugu nahi dugun Aberriaren alde.  
Konpromisoak lagunduko digu zeregin honetan.

Gaurko egunez Bake eta Zorion nahiak partekatu nahi ditut mundu zabalean bizi diren euskaldun guztiekin.

Itxaropen garai berri bat bizi dugu.

Itxaropenez begiratu diezaiogun urte berriari.

Zorionak eta Urte berri on!